

SARRERA

Gipuzkoa eta Arabako Partzuergo Orokorra entitate publiko bat da. 6 udalerriek osatzen dute, 4 gipuzkoarrak eta 2 arabarrak: Segura, Idiazabal, Zegama, Zerain, Asparrena eta Donemiliaga.

Helburu nagusia bere jabetzako mendiak administratzea eta kudeatzea da: Altzania, La Reserva eta Oltza, guztiak Erabilera Publikoko Mendi (EPM) bezala izendatuak. Beti ere, dituen espezie eta habitaten aberastasunaren kontserbazioa errespetatuz.

Mendi hauek Aizkorri-Aratz Parke Naturalaren %20eko eremua suposatzen dute, Aizkorri- Aratz Kontserbazio Bereziko Eremuaren (ES2120002) barne.

Administrazio mugaren barruan Euskal Autonomi Erkidego-ko (EAE) balio handiko paisai elementuak sartzen dira, hala nola, Urbiako larreak, San Adriango leizea edota Altzaniako basoak.

Administrazioa eta kudeaketa junta batek eramaten du. Parte hartzen duen udalerrri bakoitzeko bi ordezkari eta presidentek (urtero txandaturik) osatzen dute.

Arduradun politikoa (Presidentea urtero aldatzen da).

Arduradun teknikoa: Maria Eugenia Amenabar Arsuaga.
mamenabar@partzoneria.eus

OSAKETA


Partzuergo Jabetza sistemak, Erdi Aroan lurraldea ustiatzeko moduan du jatorria. XV. mendea aurretik Aizkorri mendiko larre eta zuhaiztiak behealdeko herritarrek era komunalean erabiltzen zituzten, nahiz eta, jabetzari dagokionez, Koroaren ondasuna izan. Henrike III-ak Fernán Pérez de Ayalari eman zizkion mendi horiek 1401ean, noble honek eskaini zizkion zerbitzuen truke. Fernán Pérez Gipuzkoako Merio Nagusia eta korregidorea zen. Hainbat gertaera eta gero, 1430ean Partzuergoa sortu zen.

Lehenbizi lurren dohaintza egin zen urte berean. Segurako hiribilduak eta bere babespean zeuden Legazpi, Zegama, Zerain eta Idiazabaleko hainbat herritarrek mendi horiek erosi zituztenean Fernán Pérez de Ayalari 500 florin eta 2 ehun atalen truke.

Aipatu behar da beranduago Legazpi talde horretatik bereizi zela bere udal barrutia osatu zuelako, eta baita ere, horren barruan sartzen ziren Aizkorri mendiaren iparraldeko hainbat lur eremu, ordura arte Partzuergoko kide guztiak partekatzen zituztenak.

Arabako udalerriek alde berean, erosketa horretatik kanpo geratu zirela ikusita, lur eremu hori erabiltzeko zuten eskubidea aldarrikatu zuten.

Azkenik, 1430eko azaroaren 16an, San Adriango kobazuloan egin zen bileran akordiora iritsi ziren. Bertan, Gipuzkoako eta Arabako Partzuergoa osatzen zuten hitzarmena Segurako hiribilduak (eta bere menpe zeuden Zegama, Zerain eta Idiazabalek),



C.I.F. P-2000005-E

Aguraineko hiribilduak, Egirazko ermandadeak (gaur egun Asparrena eta Donemiliaga) eta Zalduondok sinatu zuten eta bertan lurraldearen mugak, erabilera eta jabetzaren komunitateko kideen jabetza markatu zen.

KOKAPENA

Partzuergoaren ondarea osatzen duten mendien azalera 3.197,64 ha-takoa da. Gipuzkoako lurraldearen hego-ekialdeko muturrean dago, Nafarroa eta Arabarekin mugan.

<https://www.google.com/maps/place/Parzoner%C3%ADa+General+de+Guip%C3%BAzcoa+y+%C3%81lava,+Gipuzkoa/@42.9376195,-2.3597392,12z/data=!3m1!4b1!4m5!3m4!1s0xd503b4770f2f53d:0xecb0835a21084e49!8m2!3d42.9098662!4d-2.2531929>


JABETZA

Partzuergoa sortu zenetik sei mende pasa badira dira. XIX mende erdialdera arte, egoera nahiko egonkorra zain zen, Nafarroako Burunda, Legazpi eta Oñatiren artean gertatu ziren akordio eta desakordioak salbu. Garai horretan aldiz, hainbat gertaerek egoera aldarazi zuten: basoko baliabideak, ustiatzen moduagatik, gero eta urriago ziren, baso-kudeaketan politika berriak txertatu zituzten, lur-eremuetan erabilera kolektiboak beharantz egin zuten banakako erabileraren mesederako eta udalerrriak bortizki txirotu ziren garai hartako gerra-gatazkak zirela eta.

Horrela Agurainek zuhaitzia saldu zien Zegama, Idiazabal eta Zeraini 1850ean, eta 1916an bere larre eta urak erabiltzeko eskubidea indargabetu zuen. Zalduondok bere zuhaitzia eman zion Asparrenari 1909an. Testuinguru horretan Legazpi (nahiz eta ez izan Partzuergoko kidea, historikoki harreman estua izan du) Oltzako zuhaitzia erabiltzeko eskubidea eskuratu zuen 1852an.


Nahiz eta komunitatearen antolaketa hasiera-hasieratik ezarri zen errenta jakin batzuen banaketarako, ondarea 220 zatitan banatutzat hartzen da, eta zati horiek modu desberdinean banatzen dira elkartea osatzen duten kideen artean.

URTEAK	1430	1950	2021	
				%
SEGURA	60,00	60,00	52,75	%24
IDIAZABAL	21,00	42,00	49,25	%22
ZEGAMA	19,00	47,00	47	%21
ZERAIN	10,00	16,00	16	%7
DONEMILIAGA	27,50	27,50	27,5	%13



C.I.F. P-2000005-E

ASPARRENA	27,50	27,50	27,5	%13
AGURAIN	55,00			
GUZTIRA			220	



ERABILERAK

Gizartea aldatzen joan den neurrian, erabilerak mendeetan zehar aldatzen joan dira. Esate baterako pasa den mendearen erdi aldera garo biltzeari utzi zitzaion. Aldiz, erabilera berriak ere sortu dira, gaur egun geroz eta ugariago den mendiko aisialdia adibidez. Badira ordea mendeetan zehar mantendu direnak: basoa, larreak eta ehiza. Lehenengo bietan parte hartzen duten herrien arteko gozamenerako eskubidea berdina bada ere, ehiza-postuen banaketa Partzuergoa osatzen duten udalerrietako bakoitzak duen zatien arabera da.

Partzuergoko erabileren artean daude:

- Dominika borda
- Ehiza
- Larreak
- Biodibertsitatea
- Urbiako fonda